

ANTZERU



EVOKALAMTZERUAREN
ILEROKOAK

URTEURENA

— BAKARIZKETA —

- TXOKOLO, TXERÍ-TRATALARI -

— BAKARIZKETA —

23 ta 24'en Zenbakia

1933.-Azaroa-Abendua

II URTEA.

IĒKO BEĒIAK.

ANTZERTIren

LENENGO Antzerki batzaldi

ta sariketa

Epai-iritzia

Batzaldi ontara, ĩru baka-fizketa ta zortzi antzerki aurkeztu dira.

Ona emen, antzez-lanok sakonki ta astiro aztertu ondoren, epaimaiekoak ao batez artutako erabakia.

BAKAĒIZKETAK

75 laurleko saria = *URTE-URENA* = Gauz aundia izan ez aŕen gaez beĒi ta ĩatsegin da; ongi tajutua ta euskera txukun-garbia darabilkilako beretzat saria. Egilea = Arozena'tar Andoni. - Lasarte.

25 laurleko saria = *TXOKOLO, TXEĒI-TRATALARI* = EĒikoi ta eĒeza; gaez gain-gaĒekoa izan ez aŕen. Egilea = Kafaskedo Olafa'tar Yarkinda. - Donosti. =

ANTZERKIAK

250 laurlekoko saria = *ETXE-ALDAKETA* (ekitaldi

bat) = Eder-edefa, bizi ta bikaĒa. Gaez txalogafia, izkeraz biribila, antzez -legez oso-oso. Erakuspen edefak yalgitzen ditu. GaĒera ikaseĒez ta antzez eĒeza. - Egilea = Kafaskedo-Olafa'tar Yarkinda. - Donosti. =

150 laurleko saria = *ITURĒIAN* (bi ekitaldi) = Gaez, ĩilmiĒoa. Nola nai ere jende zearen aokoa izango da noski. Bigafen ekitaldia moteltxeagoa, lenengoa baĒo. Euskera eĒeza. Maxiatxaleak "xartako" edefik daramate. - Egilea = AmonaĒiz'tar Ander. - Alegi. =

Aipaldi berezia — *ARANTXA-DUNIXI* (iru ekitaldi) = Lenengo ta bigafen ekitaldia, oso txukun eta polltak. Irugafenean, ordea, ez du azkenkorapiloak azkatzen asmatu egileak. Lan asko ta edefa egindula-ta "aipagari" jotzen diogu lan au egileari Arozena'tar Andoni. - Lasarte. =

Saritutako ez beste antzerkien-egileak eskatu litzazteke. "ANTZERTIK" bereala "correoĒ" itzuliko dizkie.

Tolosa'n 1933. Lotazila'k 31

Epai-maiak.

URTEURÉNA

ARozENA'tar A.

1933'ko Antzerti'ren batzaldian Lenengo saria
irabazitako Bakañizketa.



1933

TOLOSA'n: LOPEZ-MENDIZABAL'enean.



URTEURĒNA

(Emakumezkoentzat bakañzketa)

ANTZEZTOKIA: ate ta leyo ditun edozeln erako gela.

ANTZESLARIAK: etxeoandre gaztea, etxe-baũuko jantzia.

(*Atetik bero Itxuran sartuaz*). Ito bear da sukalde ortan. Izan ere gaurko egunaren sargoia...! A...! Bost minutun bederik ementxe egon nadin. (*Arpegia aize-tuaz*). Igualeko prexkura dago emen...

Andaluziko batek zionez ango bero kixkalgafiarekin afaultzak prejituak ateratzen omen dira; gaur emen prejituak ezezik kixkalduak aterako zaizkitela iduritzen zait. Eta... enetxua! merkiak daude ba oraintxe afaultzak nolanai alpefik galtzeko, lau peseta t'erdi dozena! lau peseta t'erdi... ezin diteke bizi! guziya goitik dabil, oso goitik... ia ba: dozena afaultz lau peseta t'erdi, libra xefa amabi efial, esnia lau txakur aundi litrua, pofu-pefejil txorta txiki bat lau txakur aundi, aza-burua efiala, olioia iru peseta litrua, ogia ogei xentimo opila, legatza iru peseta libra, bixigua, atuna, baratxuri, tipula, azanayo, azukre, piper, irin, ħabafun, urdai, arġo, cafe... o...! guzi-guziya goitik dabil, oso goitik, etxe-efenta befiz zer esanik ez... gurea seigafen bizitza baita...!

(*Alai ta asetasunez beteā*). Gaur zorioneko eguna det, gaur urtea ezkondu nintzala... gaur urtebete, ai...! gaur urtea Tomax senartzat artu nuala, ta gañera gaur ogei ta bi urte betetzen ditut. (*Bat batean zaputz antzean*). Eta Tomax gogoratu ez, gaur urtea ezkondu giñala, nik ogei ta bi urte gaur eta Tomax gogoratu ez. (*Aldatuaz*). Izan ere nere Tomax, To-ma-xi-to gajua... zoratu beaŕean dabil bere lanakin, gizajoa oso lanpetua beti; etxeratzen danean ordea bere lan latzen ordaña jasotzen du. Ni, neronek esatea aŕoputzkeria badirudi ere, senaŕa zoriontsu egiten dakien emaztea bainalz... To-ma-xi-to'k... xa-la-me-ra naizela esaten dit... azkotan erneazten etofi aŕen eta kaletik ni leyoan ikusi utzez alaitzen omen da, berak ametsetan ibili oi zuan bezelakoxe emaztea omen naiz... etxe-koia, txukuna, alaia... gaztea, polita... ta batez ere... ai...! xurikatza! bai, ta ala biar ere, batzuetan senaŕa asaŕe dagonean goxatzeko ta bestetan... nik nai detana lortzeko; bañan xurikeri ta guzti ere askotan ez da eŕez izaten. Tomax beintzat ez da xamurta politza askatzen, nik asmatu bear izaten ditudanak xox batzuek ateratzeko! Lengo egun batean Donostia'n oñetako polit batzuek ikusi ta erosteko ziltzaldi biziya sartu zitzaidan.

—O Tomax, begira, begira, oñetako oyek bai politak...! eta bere erantzuna:

—Bai, ez dira itxuslak, bañan soñean dauzkazunak pollitagoak deritzazkit.

—Orpoan min egiten didate ordea,—nik, eta berak:

—Befiak biatz mutufetan egingo dizute ba, esanaz, beso ondatik artu ta ikustegi edo eskaparartetik atera nindun. Tomax beratzearen zaputz antzean jafi nintzan, buruko miñez negoen itxura egin ere bai baña Tomax'ek nere aitzeki maitzekiak igariaz onela dio:

—Zapatak oñetan min egiteak enau afitzen baño buruko miñik egin lezakenik ezin sinistu det.

Nere Tomax'i ziririk sartuko dion emakumerik ezta. Ni luzia banaiz bera ez da motela!

Baña utskeri oyek alde batera utziaz nere Tomax oso ona da; zakar xamaña, batzutan, ori bai, baña ona... O! gatzik gabeko ogiya baño obia. San Antonioyori eskerak nik nai bezelakoxe senaña egokitu zait.

Tomax baño len zenbat izan nituen atzetik! Neronek ezagutzen ditudan amaika nexkatx badaude sukalde bazteretik atera gabe mutilak begiratzen ez diotelako; nik beintzat ez nuen ofelako estuasunik izan, egunero bat edo beste banuen! mutilak... puf! nai aña, ostikoka... (*Beatzakin zenbatuaz*) Josetxo, Juanito, Pako, Iñaki, Pele, Benjamin... Moexto, Anastasio, «Goiko-erota»'ko Patxi, Joxe, Sabin, Mikel... «Zubiaufeko» Joxe Mari, Mendizabal'eneko Anton... Urbaneta'ko Federiko... Jon indianua (*Bat batean*) o! au zaña zan, nere aitona izan zitekiena, izketan ere etzekien, Arjentina'ko gariyak gora, Arjentina'ko beyak bera, besterik etzuan asmatzen. (*Alai oroituaz*) besteak... Iñaki, mutil bikaña... baño... afoxko xamaña, Josetxo dantzari ariñetan ariñena baño... pafanderua, Moexto argiya ta pizkoña baño nexkatxen aurrean itz total, Goiko Erota'ko Patxi... zenbat nexkatx ikusi ainbeste nai zituana, Benjamin... ilundu ta gero bakarik etortzen zan nere bila, Anton Amerika'ra jun zan, Joxe Mari... au bai zala mutila, baño... ai...! jesuita sartu etzan ba?. Azkenean Tomax azaldu zan... o...! Tomaxito... auxe izan zan nere biotza dar-dar jafi zuana, Tomax, Tomaxito... auxe izan zan gaur urtebete aldare auffera eraman ninduna... gaur urtebete... (*Zaputz antzean*) gaur urtebete bai, ta Tomax gogoratu ez! gizonak ofelakoxeak dira, bein ezkondu ezkerok ez dira ezertzaz gogoratzen, (*Asafe*) noiz ezkondu ziran ere ez! xurikeriak beretzat bakarik nai izaten dituzte gizonak, ezkontzako urteufena bezela Tomax'ek egin bear zizkidan ba gaur neri, ezta? Ba, ez, ezerez... Zakufak bezela atera ta kito! A, gizonak berekoyak dira, (*oldozkor*) Berekoyak...? ala ote dira ba? (*Aldatuaz*) ez, ez... tira... ezagutu bear da gizonak bere “negoziyo” ta eginbearakin oso

lanpetuak ibiltzen dirala, e?... Tomax'i ere ori bera gertatuko zitzayon gaur; egun abetan zoratu beafean bai dabil.

Baña laxter bazkaltzera etoriko da ta eskaletan sartu orduko sukaldetik zabaltzen dan usai goxoak xudufak kilimakatuko dizkio ta zerbait gogoratu arazi ere bai. Izan ere, orj bazkaria jafi det. Gaur nere xurikeri beafik ez du izango Tomax'ek, bazkaria bera da nai-ko xurikerigafi; izan ere au bazkaria!: Bitartekotatik, "entremesak", mota guziak; sopa, izafez josiya; pefetxiku-tortila; otafaia bere adar, atzapar gofi ta guzi aldamenean mayonesa ori-ori duala; bost ilabeteko olaxko guri-guria tontorka bat letxuz ornitua; xaltxa goxo-goxotan epefak; postriak ere guziak neronek egiñak: baratzako mafubi gofi-mardulak eta krema... sei afaultzakin egiña! ta Mendaro'ko bizkotxoz inguratua. Tomax-i krema gustatzen zayonarekin a zer platerka jango duen! (*Oroituz*) A, ta gañera Mendaro'ko gertaera gogoratuko zayo ta ja, ja...! a zer algarak egingo ditun! Neroni ere gogoratu utsez lertzeko zorliyan jartzen naiz... Gertaera ori benetan pafegafi da gero... Tomax bultzian edo trenean Bilbao'ra zijoan batean bere aldamenean andaluz bat omen zuan. Mendaro'ra eldu ziranean, oi bezela mutiko ta nexka kokofak bere saskitxoak eskuetan zituztela ojuka asi ziran "Bizcochos de Mendaro... Bizco... chos de Mendaro"...! ta andaluzak afituta onela omen dio: Qué dicen...? Bicocho remendao...? ja, ja...!

Ba krema ondoren akeita, kafia, tranpik gabekoa, puru-puru; txola orain ogei urtekua ta txokofa... (*Besoa erakutziaz*) onenbestekua bai, a zer keak atera-ko dizkion Tomax'ek!

Auferantzean etzayo aztuko ez gaurko egunez bere emaztetxoaren urte-betetzeaz gañera ezkontza-urteufena dala.. (*Pozez zoratu beafean*) Laxter, laxter... eskaletan sartu ta oi ez bezelako usai gozoa nahaitzean... o...! afituta etoriko da... a zer poza ekafiko duen! (*Une onetantxe asieran antzeslaria*

atera dan gela aldean zalaparta-aundika gizaseme abots zakafez itz abek entzun bitez:) Zer da au...? Uf...!! Zer ke ta zer usai aŕaye dira abek... (*Estulka ta zalapartaka jaŕaltu*).

(*Oso laritua*) E...? Ene... Tomax da... bañan zer gertatu ote da sukaldean...? (*Gogoratuaz*) A...! Krema eŕeko zan!! Edeŕa egin diat!!

Z A P I A .



TXOKOLO, TXERI-TRATALARI

Kařaskedo Olařa'tar Yakinda

**1933'ko Antzerti'ren batzaldian
Bigařen saria irabazitako Bakařizketa.**



1933

TOLOSA'n: LOPEZ-MENDIZABAL'enean



TXOKOLO, TXERI-TRATALARI

BAKARIZKETA.

(Txokolo, txefi-tratalari bluxaz).

Jaun-andreak, agur! Jai-aldi onen asiera nere bizkar utzi dute, ni baño iaigorik ez izan nunbait-eta... Besteren gain egin beafak uztea, geron gain artzea baño ezezagoa da, izan ere. Eta or bañuan, oia! artean dira ni ontaratu nautenak; beren alperkeriz ala nere kontura par-algarak egite-afen... Zuen auffera ez nakar, beraz, nere ausardiak, nere lotsagabekeriak. Besteren aginduz natorkitzue, besteren bultzadak eraginda. Eta esan didate...? Barkatu, jaun-andreak, ez bai dakit zer esan didaten... Ez dakit zer gerta zaidan; bat batean, zerk jo ta baño, burutik oñetaraño erabe-lañiak astindu nau... ta ez dakit zertara atera naizen ere... Zorapenak artu dit burua, ta nere egin beafa zearo astu egin zait... Baña... au da lanbidea! Zuen aufferz-aufe naukazuten ezkeroz, ez nuke poto-eginda gelditu nai... Esan didate... esan...? Ofa! ez naiz gogoratzen. Edefa egin det! Baña... oldoztu zadan pixka bat. Ia gogoratzen naizen! Baña zer dala-ta nago ni zuen aufferan?... Eta zuek zer dala-ta bildu zerate emen?... Ixo, ixo!... Zuek "funzioa" ikustera etoñi zerate, ezta? Bai, bai!... Zertara atera naizen orain ba'dakidala, uste det... A, bai!... Ara! : "funzioa" asi

baño len, zuei zedozer esateko; kontu-kontari denborra-aldira bat zuei igaro-erazteko, agindu didate... Ta guzia, “funzioa” egin bear dutenak... bai al dakizute?, ez omen dira garaiz etofi, bai, ta berak beren apainketa eta beste ofelako antolaketak egin bitartean... nere gain utzi dute “funzioa”. A zelako “komeriantea” nil...

Baña dana dala.. Astera noa! Ontarako, ordea, zuen baimena ta onartea nai nituzke... Baletz?... Eskarikasko, jaun-andreak, zuek entzule ta ikusle izateaz dagidazuten edefagatik... Eta ordain onez, ia nere eginbear au alik eta ongien betetzen dedan. Ala bedi!

Neri gaur gertatu zaidana ez dakit pañagafikeri ala kirtenkeri dan. Ez dakit, kontatzeko egokia ala itsusia dan. Dakitana da, gertaera au neretzako lafi-aldi izan dala; eta zuei kontatuaz atseginaldi ba'zitzazueke, poztuko nintzakeala...

Zuen ezaguna nazute, ezta?... Baña, kontu-kontari asi baño len, zuen artean ezagutzen ez naun norbait ba'legoke're, izengoitiz “Txokolo” deritzaidela esan bear djot pa'ezpadago ni ezagutzen ez naun-edo orlako ofi. “Txokolo” izengoitia zertatik datorkidan, txokolate-jikara miazkatzen dun edozein ume-mukitzuk ba'daki. Ez dago, beraz, geigo esan beafik. Badakizute nere izengoitiaren jatorria. Baña neri gaur gertatu zaidanak ez du txokolategile batekin zer ikusirik; neri gertatua ta ni “Txokolo” izan afen, Txefi-tratalari baten artu-emanakin ba'du zer ikusi, ordea. Eta neroni batzuetan txokolategintzan eta beste batzuetan txefi-tratalaritza nola ibili oi naizen ibili, gaurko nere gertaera etzain txokolategileari gertatu; txeri-zaltzaleari baizik. Zerk afitzen zaituzte?... Badakit, txokolategintza ta txeri-tratalaritza, ogipide ez-berdiñak dirala. Baña, ofa ba: egun txafetan bizi gera, bai, ta edozefi eldu bear dio gaur-egunean gosez il nai ez duan nork. Eta, gañera, ba'dira baztefetan nik baño ez-berdiñago bizi-modua ateratzen duten amaika ere. Nik ezagutzen det —eta ba'leike zuen artean arkitzea orlako ori—,

meza laguntzen eta bizafa-kentzen ogia irabazten duan gizontxo bat. Etzaitetze, ba, nere bizi-modu moldakaitzaz afitu. Baña, zer ari natzaizute? Noan, aspergafi utsean jardun-gabe, gaur neri gertatutakoaz mintzatzera...

Txefi-tratararitzak eskuarte ona uzten du; diru poliki irabazten da. Lanbide zikin-xamafa dala?... Egia, ez da garbia. Zefikeria ezin izan garbia. Baña ba'dira amaika ogipide izen itsusi orl txefi-tratalari bati baño obeto legokienak. Oiek azaletik garbi; baña ba'utik... kiratsa bezin beltz. Txefi-tratararitzaren akatzik txafena ez dago txukuna ez izatean, ez. Baizik txfelik ez-tuasun asko ematen dituztela. Ta gaur neri eman di-datena ez dala txikienetakoa izan. Orain jakingo dezute.

Lau-txefi bidali bear nitun gaur Donosti'ra, "mix-tuan facturatuta". Eta lau txfiok "estazio,,runtz naramazkiela, bidean igaro, da inpernuko tximista bezin azkar igaro ere, "automobil" madarikatu bat, atzetik kea ta autsa zerizkiola... Izutu dizkit txfiak, zalapartari eman die laubak, eta lanbideak izan ditut arkitu eziñik. Noiz-bait eta nola-bait, estazioratu gera, ta sartu ditut Donostira'ko "trenean" Nere lau txfiok dijoazen bagoiean, ordea, ez dakit noren burutazioz, bi txekor sartu ez dizkidate ba!... Ta buruak eman dit, lau txfiak txekor artean bakañik uzten ba'nitun, etzerala Donosti'ra osorik iritxiko; "txarkutegira" gabe txfiki ta odolki egiñik irtengo zirala. Ta, pentzatu ta egin, neroni ere bagoiean sartu naiz; nere txfifituak txekor-adarkadaz ez zitezen galdu... Irtun da trenea Donosti'runtz. Gelditu da emengo, ango ta aragoko geltokietan. Geltoki bakoitzean, aruntz ta onuntz, tanka ta tunka; onuntz ta aruntz, tunka ta tanka, erabili gaitue erabili... Txekor ta zefiak oso izutu zaizkit, asefeak artu ditu, ta aien zalaparta eta amofu artatik nere burua onik atera baldin nai ba'nun, bagoiko leio-burnietatik zintzilik joan beafean ikusi naiz... Iritxi gera noiz-bait Donosti'ra. Ez nik nai bezin azkar iritxi

ere! Eta txefik jasotzera atera dan gurdin nere lau txefiak ikusi ditudanean... pozik artu det arnas! Eta estaziotik atera gabe, alki batean jafi natzute, patxada edefean ta gilbor-zabal jafi ere. Ura zan patxada ura! Onen egoki ta lasai nengoala... zer burutaziotan ote nengon, gero!, kaxo Txokolo! — deitzen dit norbaitek. Burua jaso dedanean... nor izango-ta!, txefi-tratalaritzan adizkide dedan Beixama, zutik auzez auzé... — Zer egiten dek emen, Txokolo? — bere galdera. — Emen?... Etixerako trenaren zai —nere erantzuna.— Abil, ba, azkar, emen gelditzea nai ez'padek. Ez al dek ikusten ateratzera dijoala?— berak neri. Eta ni nere zudur auzean neukan trena ikusi gabe... Zer burutaziotan ote nengon! Bagoiko leio-burnietatik zintzilik oraindik, apika... Gu trenean sartu ordukoxé, “fi-fa-ja” ka zijoan... Eskefak Beixama'ri, an nengon oraindik bes-tela!... Atzo lodikote baten ondoan jafi naiz. Bai ederkil! —nerekiko nion. Aparitarako etxean... Bai ederkil! Baña, alako batean, nere jarleku azpian zedozer zebiléla nabaitu nuan. Begiratzen det alkiperera. Ta zer ikusiko! Alproja bat kiskurtuta alkipean. Burura eskuk eramanda... edefa egin dit, edefa!, ojuka asi nintzan. —Zer dek?—, Beixamak neri afiturik. Zer dedan?... Edefa egin dit, edefa! Alkipean alproja bat zijoan, eta neri gogorazi zidak ni ere bilete gabe nijoala. Txefikin batean etofi nauk bagoiean, ba'kik?, ta arakoan ez niñ. bilete beafik, ta onuntzakorik erosi bear nunik ere etzaidak bururatu; ez bai nauk ezertarako estaziotik atera.. Edefa egin dit, edefa!... Ontan, begiratzen det leiotik... ta emen det bilete-zulatzalea... ta ni zer egin ez nekiela... Sartu adi ire azpira!—, Beixamak neri. Ta ni, geiagokorik gabe, an noa alkiperera, alako alprojatar ari lagun egitera. Aiek estuasunak nereak, bilete-zulatzalea inguruan izan genuen bitartean! Nere aldameneko atso lodikote ark.alkipean zeraman otafarekin eskutatu nai nuen nere burua. Baña atzo lodikote ark bere otafari. eltzen niola igafi orduko, etzidan pakean utzi, Onek otafari tira, ark otafari tira; nik tira ta ark

tira... Ta bitartean, belduraren belduréz, kixkur kixkur egin da, ta arnas artzeko belduréz ni... Alako batean joan zan txartel-zulatzalea. Ura lasaitasuna nerea! Alkipeatik atera nintzanean, atso lodikote ari esan nion: Zer, etxekoandre, beldur al zihan zedozer lapurtuko ote nizun-edo?... Eta arpegi zofotzez erantzun zidan: Ez dakit, um! ez ote didazun ařapatu, gero?... Eskarrikas-ko, etxekandre!, erantzun nion. Ez bai nuan atzo afe-kin aseferik nai. Ori bear gendun! Ta tren estaziora-tu zanean, gelditzeko betik artu gabe, laixterkari eman nion. Atso lodikote ura, beřiz, bere otafari begira gelditu zan... Ura zan atsoa, ura!...! Etzan oraindik piyo.

Ona emen neri gaur gertatutakoa. Ez ote zait ezer gelgo gertatuko gero?... Trenetik kofikari eman da atera ba'naiz atera, ez ote det, jaun-andreak, emendik ere anka jokoari emanda alde egin bearke? Ez det uste. Zuek onak baizerate. Ta ez dedila zuen arpegia iřnoiz, atso lodikotearen asefe-irudi. Jaun-andreak, nere "funzioa" bukatu da... (*Mikeletea sartu bedi ba-
kar-izketa au emen bukatu nai ezpada*).

Mikeleteak—(*Sartuaz*) Bukatu dala?... Ez; Txokolo, ez!... Ufuzizkiñez deitu dute emakume bati alkipean zeraman otaretetik zeozer "faltatu" zaiola, ta zu alkipean etofi zerala-ta...

Txokolok —Nik?... Baņa, nola liteke ori?... Zuk ongi ezagutzen nazu, ezta?... Ori bear genuke! Alkipean zijoan beste alprojatzar ark ařapatuko zion. Nik, ez!

Mikeleteak—Bai, gizon, bai! Ba'dakit oneko gizona zerala, ta zu etzerala... Baņa atoz nekin!

Txokolok —Atso lodikote alena ez besterena! (*Bijoaz*).

Z A P I A .

SALGAI DITUGUN ANTZERKIAK.

BAKARIZKETAK:

(1) GUZIK GAXO—X.	1,25
ANDREGAIA NAI TA.....—Arozena	1,25
URTEURĒNA —Arozena'tar A.—Antzerti'ren batzaldian lenengo saria irabazitakoa.	} 1,25
TXOKOLO, TXEĒI TRATALARI —Kafaskedo' tar Y.—Antzerti'ren batzaldian bigafen saria irabazitakoa	
ASENXXI TA KONXXESI—Alzaga —(Neskatxuen- tzat)	0,60
MOTXA EĒIAN—Artola	0,60
IRU BAKARIZKETA.	0,60
PRAIXKU—Artola	0,60
IXKIÑA MUTRIKUN —Iraola	0,60
POĒU-SALDA —Nuñez-Arizmendi	0,60

EKITALDI BATEAN:

MEZA BEĒIA—Bafiola—(Gizonezkoentzat).	1,00
ALDIZ-ALDIZ— id.	1,00
(1) LAÑOTA IZAR—Lizardi'tar X.—Ipui antzezgafia.	
(1) EĒEGINĒETAN (Mayak)—Ayanbe-(Ballet)	
(1) Oek irurak batean, 1,75.	

MATEO TXISTU—Labayen	1,25
ATERAKO GERA — Alzaga — (Gizonezkoentzat).	1,25
PATXIKO TA MARTINTXO—Amonafiz'tar	} 1,75
Ander — (Mutikoentzat)	
ZENBATEAN SAGAÑAK—Goenaga'k euskeratua	
ZANPANTZAR—Alzaga	1,25
GOIMAITASUNA—Gazteiz'ko Kardaberaztafak euskeratua (emakumézkoentzat)	1,25
USTEGABEKO POZA—Amonafiz'tar Ander'ek tajutua	1,25
POXPOLIN GOÑIA.—J. Markiegi'k euskeratua.	1,25
ANTIGONE.—Zaitegi'tar J. euskeratua	1,75
ESKALEAK (erderazko Los Mendigos'etik euskeratua)	1,25
ATZETORKIA — Elizondo	0,60
OSTEGUN GIZEN—Labayen — (Nexka-mutilentzat)	1,50
SORGIÑAK'—Barbier-Lekuona	0,50
SUTANBIOTZA—Iruretagoyena — (Mixio-antzerkia)	3,00
NEGAÑEZ IGARO ZAN ATSOA—Sota-Urkiaga	1,50
OROIGAÑIAK — Ortuzar — (Afantzale-antzerkiak)	4,00
ILARGI BETE—Urkia P.—(Mixioa-ntzerkia).	1,25

BI EKITALDITAN:

BI AIZPAK—Lizardi'k euskeratua	1,25
ARANTZA — Aroztegi	1,75

SEASKA-ABESTIA—Lopez Mendizabal'ek euskera- tua (Martinez Sierra'ren "Canción de cuna") . . .	1,75
EGIAZKO ARGIA—Piafes Itufalde'k moldatua . . .	1,75
IPAÑAGIÑE—Labayen'dar Andoni	1,75
ATOR ETA JAÑAI AKIT—Afizabalaga—(Mixio-an- tzerkia)	2,00
ONGILEAREN SARIA—Garitaonandia	2,00
BOST URTEAN—Alzaga	1,50
AITONA TA BILOBA—Garitaonandia	2,00
IZIARTXO—Garitaonandia	2,00
BAÑANZEIN NAIZ NI?—Soroa—(Gizonezkoentzat)	0,60
ANA MARI—B. Alegria—(Mixio-antzerkia) . . .	4,00

IRU EKITALDITAN:

NESKAZAR—Alzaga	1,25
EUSKAL-EGUNA—Labayen	2,00
LORE BAT LOITAN—Amondarain—(Neskatzentzat)	2,00
ABAROA TA BABESA—Beobide	2,00
IRITZA—Alzaga.—"Macbeth" Shakespeare'n euske- rapena	2,50



8 PESETA URTEKO!

besterik ez da ordaindu bear ANTZERTI'ren
arpidedun izateko. Nai duenak, lenbailen
jakin-erazi, laguntza bear degu-ta.

Antzerkigile sarituak

Bi urte auetan izan degun unerik atsegiñenetako bat, oraingo auxe zaigu: alegia, antzerkigile sarituak aurkeztutzea.

Idazleak artzen dituzten neke, danak ondo dakizkigu, geienetan, iñork gutxik aintzakotzat artu afen. Ez degu esan nai idazten lan guzia txalotu ta goratu bear danik. Bai ordea, jaso ta asieran idazleen emaitzak bear duten giro epelera aldatu. Urte askotako alegiñak ezetsita ikus-tea mingafi bai-da. Belar txarok ere maitasun apur batez berdin jofatu ditezke... Aterpe gozo ta lur gizen ori izan nai du *ANTZERTI* antzerkigileentzat.

Gure epai, iritzi ta erabakietan ba'liteke iñoiz utsegitea: bañan zabarkeri ta eragabekeria gugandik urun bitetz. Ez dedila gerta zenbait sariketetan bezela, onelako edo alako eskeñil, agindutakoa bete ez, eta idazleai alper gaiztoan itxoin arazi. Zuzen ala oker gure itza bete bear degu; zintzotasunez idazleen uste osoa irabazi nalaz.

Beste lekutxo batean dijoa

-Olaña, Arozena ta Amonafiz jaunak.

Gure zorionik sutsuenak guzioi, batez ere Kafaskedo-Olaña bilabonatar idazle argiari, aurtengo antzerti-sariketan txapeldun geldi dalako. Aspaldidanik zaigu ezagun Kafaskedo idazlea ta antzertirako zaletasun eta lelaz lanean ari zala ba-genekigun. 1933'ko Antzerti-saria neke-ordaña bezaio ta auferantzean gora igotzeko asnas befi ta zirikada. Arozena'tar Andoni, lasartear ertilari bikaña etorkizun aundiko antzerkigile degu. Amonafiz tolosar jatoña ez da gaur goizekoa euskel antzertian. Alare beti gertu, ta biotz gazte lanerako; ospegafia da gizon onek ogeitam urte auetan, gure antzertiaren alde osatu dun egiñala. Ekin eta jafai!

Zuzendariak.

“T'go Euskel-Antzerti Eguna”

- Antzezlari-talde sariketa -

Antzerti sariketa burutu orduko beste sariketa bat geiago iragartzera goaz: antzezlari-talde sariketa. Bion artean antolatatu nai degu, emendik

peldun gelditu dedin antzezla-
ri-taldeak, egun ortan antzez-
tuko du saritua izan dan an-
tzerkia. Aurten "*Etxe aldake-
ta*" Karaskedo-Olaia jaunare-
na. 1934'ko antzerti eguna
Donostia'n jaituko da Epaila'
ren 26'gafenean.

Sariketa ontaz, datofen zen-
bakian emango ditugu xeeta-
sun geiago ta baldintza guziak.

"*Etxe-aldaketa*" antzerki
jatofa, baita ere datofen ema-
naldian argitaratuko degu.

ANTZERTI-Euskeltzaleak.

== KINEMA ==

Gu izan giñan lenengo al-
diz "*Euzkadi*" deritzan "*film*"
bat gertutzen ari zirala esan
gendunok. Orduan zer zan
aitatu gendun eta zer nolako
gauza ikusgafiak zituan. Gaur
"*film*" eder ori Euzkadi'ko
efi askotan entzun eta ikusi
dute: Bilbao, Donostia, Gaz-
teiz, Tolosa, Ernani, Bermeo,
Ordizia, Efenderi, Ufexu ta
abar.

Guziok, ao batez, ikuskizun
gain-gañekoa dala diote, zen-
tzunen asefafi ta gure Eña'ren
jasogafi...

Au naikoa ez dala, "*ikuskin*"
ofek erakutsi digu, Kinema
ertiaren bidez beste amaika
lan egin ditezkelata gure luñari
begira.

==JOSTARI==

Aldizkingi au irakurleen es-
kuetara iritxi orduko "*Josta-
ri*" taldeak Iruña'ko "*Gaya-
rre*" antzokian lenengo aldiz
"*Emmanuel*" Vallejos napa-
ridazle iaioaren eguberi-age-
faldiak antzetzuko zituzten.
Antzerki lan onek erestaldi
edergafiak Beobide ta Ola-
zaran'ek egiñak ditu.

Bigafen antzezkiuna il-
beltzaren zazplan Donostia'
ko Kursaal'en ematekoak dira.

Ikusi ta entzun ondoren
ufena zerbait esango degu
"*Emmanuel*"i buruz. Gheon
pantzetañaren Antzerkien an-
tzera, kristau ta erti arauz
lan ederafak egin ditezke eus-
kel-antzertian.

Aspo.

- Gure asmoak -

Irugafen urtean sartu aurretik
gure irakurle ta adiskideak befi
pozgafiak eman nai geniezke.

Ufengo zenbakitik asita
"*Antzerti*" edertuta agertuko
zaigu. Azalez eta mamiz
aberats eta txukunago. Bi
urtean ibili ditugun pixaioia-
lak utzita egin diguten so-
ñeko befia jantzita azaldu-
ko gera (J. L.) Urte befi on
adiskideak! Arpidedun bakoi-
tzak beste befi bat arki de-
zala ta ez gera ontan ba-
kafik geldituko.